

3

**AURREALDE,
ATZEALDE**

Era honetako lehen hitzak (*gain, goi, azpi, behe, barne, barru, barren, aurre, atze, aitzin, gibel, kanpo*) Axularrengan agertzen dira, *aitzin alde, gibel alde, gainalde* eta *barrenalde*, hain zuzen. Harrez gero *aitzinalde* eta *gibelalde* aski ohikoak dira literatura tradizioan eta ildo beretik *aurrealde* (Lardizabal, Soroa, D. Agirre...), *atzealde* (Iztueta, Lardizabal, Uriarte...), *azpialde* (Duvoisin, Txirrita...), *barnealde* (Iraizoz...), *barrenalde* (Pouvreau, Arrue...), *barrualde* (D. Agirre, Azkue....), *behealde* (Agirre Asteasukoa, Iztueta, Apaolaza...), *gainalde* (Mendiburu, Duvoisin...), *goialde* (Kardaberaz, Iztueta, Arrese Beitia...), *kanpoulde* (Duvoisin, Uriarte, J. Etxepare, Etxeita...) e.a.

Mende honen erdialdera edo, *k*-dun formak (*barrukalde, atzekalde*...) hasi ziren Hegoaldeko euskara idatzian agertzen, *barruko alde, atzeko alde* esapideen batze baten ondorioz. Joera hau asko hedatu da azken urteotan, nahiz eta tradizioko formak ez diren desagertu, batez ere idazle ereduakoen artetik.

Hortaz, Euskaltzaindiak gogorarazten du, euskara idatzian, *aurrekalde, atzekalde, barrukalde, gainekalde, azpikalde, goikalde, behekalde, kanpokalde* bezalako forma berri eta batasun hauleak ez direla egokiak euskara batuan, eta hau erabakitzen du:

Erabil daitezela, oraintsu arte egin den bezala, esapide osoak: aurreko alde, atzeko alde, barruko alde, gaineko alde, azpiko alde, goiko alde, beheko alde, kanpoko alde e.a., edota forma atzizkidun jatorrak: aurrealde, atzealde, barrualde, gainalde, azpialde, goialde, behealde, kanpoalde e.a.

Honek ez du esan nahi horretarako tradizio mintzatua dagoenean *aurreko alde, atzeko alde* formak *aurrekalde* eta *atekalde* ebakitzea gaitzesten denik.

Bibliografia: *Orotariko Euskal Hiztegia*, s.v. *aitzinalde, atzealde, aurralde, azpialde, barnealde, barrenalde, barrualde, behealde*.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

Aurrealde, atzealde